




ORRI INFORMATIBOA



Igeldoko Herri Kontseilua - Itsas Aurre Kultur Etxea. Herriko plaza Z/G. IGELDO
Tfona.: 943 31 30 30 Emaila: igeldokoorria@gmail.com

HERRI KONTSEILUA BERRITZEKO HAUTESKUNDEAK

MAIATZAK 24



AURKIBIDEA

Herrian zer berri? / 2-3-4-5

Kontu kontari / 6-7

Monografikoa / 8-9

Handik eta Hemendik / 10

Denborapasak / 11

Banitxakiñan! eta Agenda / 12

Kaixo herrikide!!!

Hemen dator udaberriko alea. Azken bi hilabete hauetan herrian egin diren hainbat ekintzen informazioarekin gatoz.

Asteburu-pasak, kontzertuak, auzolanak...

Maiatzak 24, Herri Kontseiluko hauteskun-

deen eguna izanik, erreportajea Herri Kontseiluko 2 kideri egin diegu. Eta San Isidro eguna gainean dugula eta zerbait berezia egin nahi izan dugu.

Ea gustoko duzuen!

Hiru abesbatzen kontzertua

Lezkarri abesbatzak antolatutako kontzertua ospatu zuten martxoaren 28an Igeldoko elizan, beste bi talderekin batera, "Alaia", ONCEko abesbatza eta "Ekintza" antiguatarearekin. Emanaldi ederra osatu zuten, euskal abesti eta mundu zabaleko beste askorekin. Bakoitzak berea egin ondoren, saioa amaitzeko, hirurek elkarrekin bi kantu abestu zituzten.

Elkartean bukatu zuten eguna, afari legean, kantari eta umore onez.

Ohitura jarraituz, udazken aldera, berriro elkartu eta emanaldi bat egiteko gonbita luzatu zioten Lezkarriri, Igeldoren izena eta izana zabaltzen jarraituko dute, bide batez.

Gerturatu zirenekin eliza aski bete zen, nahiz eta bertako jende asko ez zen azaldu, aste santuko oporrak aldeztu aurretik hartuta zituztelako agian. Ea hurrengoan gehiago ani-

matzen zareten, zuen txaloak asko estimatzen dituzte eta.

Hurrengo zita, "EMUSIK" proiektuaren baitan izango da, Anoetako estadioan, maiatzaren 9an arratsaldeko 5etan. 2016ko ospakizunen artean, milaka musikari eta kantari bilduko dituen ekimenaren entsegu orokorra da.

Urtero bezala, ekainean, San Pedrotan, abesbatza ikusteko aukera ere izango da.



Abesbatzak Igeldoko San Pedro elizan.

Gazteak M8-arekin bat egin zuten

Martxoak 8 Emakumeen Nazioarteko Eguna zela eta, aste morearen egitarauaren baitan hainbat ekintza burutu ziren; larunbatean pala txapelketa egin zen, amaieran umore ederrean parte-hartzaileek patata-tortila eder bat dastatzeko aukera izan zuten. Igandean, aldiz, goizeko manifestazioan parte hartzeaz gain, arratsaldean "Festa dezagun gaurdanik geroa" dokumentala ikusi zuten. Bertan, argi geratu zen, oro har, jaietan gizonezkoak direla protagonista eta gizarte parekide bat lortzeko bidean herrian ere oraindik asko dugula egiteko.

Armarri lehiaketa

Aurreko Orri Informatiboko alean azaldu zen bezala, apirilaren 10ean amaitzen zen armari-proposamenak aurkezteko epea.

Epe hori igarota, ez dela proposamenik aurkeztu ikusirik, oraingoz bertan behera uztea erabaki du Herri Kontseiluak.

Aurrerago beste deialdi bat egiteko asmoa dute. Jakinaren gainean jarriko zaituztete.

Presta ditzagun oihalak

Kaixo herritarrok:

Datorren ekainaren 21ean, Gure Esku Dagok Euskal Herrian apustu berri bat egingo du. Gipuzkoari dagokionez, Donostian, egun guztian zehar, jaia eta aldarrikapena uztartuz, goizez zein arratsaldez, hainbat ekimen antolatu dituzte. Ekitaldi nagusia arratsaldeko 5etan Anoetako futbol-zelaian izango da.

Baina aurretik auzo eta herri guztiek badute zer eginik, baita Igeldok ere.

Ekainaren 2ean, oihalez osatutako hautes-tontzi erraldoiak egingo direnez, koloretako oihalak hogeitak pertsonako taldeetan banatu

behar dira; eragile desberdinak, koadrila desberdinak, familiak eta herriko taldeek, oro har, konpromisoa adierazteko, oihal horiek, taldeka eskuratu eta, mezua idatzi ondoren, ekainak 21ean Donostiara jaitsi behar dute.

Hori dela eta, Igeldon martxan jarri gara eta zenbait igandetan, plazan, oihalak, kamisetak eta informazioa eskuragarri jartzeko asmoa daukagu. Beraz, herritar guztiak animatu nahi zaituztegu parte hartzera, denon artean ekimen arrakastatsu bat lortzeko.

Igeldoko Gure Esku Dago

EMAKUME AFARIA URTETIK URTERA ARRAKASTATSUAGO!!!



Miren Zinkunegi 10. urteurreneko opari bereziarekin

Urtero bezala, aurten ere, Emakumeen Eguna ospatzeko, afaria antolatu zuten herriko emakume baseritarrek. Martxoaren 7an izan zen Iturrieta Berri jatxean eta adin ezberdinetako 77 emakume elkartu ziren. Aurtengoa 10. urtea izan da eta inoiz baino jende gehiago elkartzeaz gain, afalostean kantu-saio berezia izan zuten Itziar Zamorarekin. Bestalde, afalosteko zozketan ere izan zen berrikuntzarik, betiko nekazal produktuz osatutako saskiez aparte, opari berezi bat ere izan zen.

Asteburu-pasa Kixmirekin

Ohiturari eutsiz, asteburu-pasa izan dira haur eta gaztetxoak Kixmirekin. Adunako aterpetxean izan ziren martxoaren 13tik 15era bitarte eta herri hori ezagutzeaz gain, gurea ere hobeto ezagutzeko aukera izan zuten; urtero arrakasta izaten duten ekintzak egiteaz gain, horretarako prestatutakoak ere izan baitziren oraingoan. Hainbat pista, proba eta jolasen bidez, haurrek euren abileziak jarri behar izan zituzten martxan!

Kixmik egindako balorazioa bereziki positiboa izan da aurten, bai parte-hartzearen aldetik, baita euskararen erabilerarela dela eta ere. Eguraldiak askorik lagundu ez bazuen ere, gustura ibili

ziren, haur zein begirale.

Orain, hurrengo ekintzei begira darrai lanean Kixmik; ate joka baititugu udaberri-festa, herriko jaiak eta udalekuak.



Kixmi Aisialdi Taldea Adunan

Eskolako haur eta gurasok auzo-lanean euskaraz



Igeldoko Euskara Batzordeak Auzo(p)lan eguna antolatu zuen apirilaren 27an. 75 bat haur eta guraso aritu ziren lanean jai giroan, eskola eta plaza inguruak txukuntzen. Lan ugari egin zuten: mural koloretsu bat margotu eskola atarian, mural handi bat margotzeko aurrelanak egin, eskolako goialdeko sarreran ezohiko loreontzi dotoreak jarri, jolasleku ondoko belardia eta plazako pareta txukundu, sasiak kendu eta abar. Goiz osoan lanean gogotik aritu eta gero, elkarrekin baz-

kaldu zuten Din Din elkartean.

Euskararen erabilera eta auzo-lanaren balioa sustatzeko asmoz antolaturiko ekimena oso arrakastatsua izan zen. Lan guztiak bukatu ezin izan direnez, ekainean beste saio bat egitea aurreikus-ten dute.

Futbolean finalera iritsi dira haurrak



Haurren futbol taldea

Amaitu da Igeldoko neska-mutilentzat futbito denboraldia. Aurtengoan ere bi talde osatzera iritsi ziren, 6-9 urtekoak eta 9-12 urtekoak.

Txikien taldeak liga irabazi du eta handiek orokorrean 3.postua eta mixtoan garaipena lortu dute. Emaizta hauekin, biek kopa jokatzeko aukera izan dute.

Apirilaren 25ean izan zen Kopako finala eta, nola ez, bertan ere Igeldo oso altu utzi zuten, bi taldeek txapeldun izatea lortu baitzuten. A zer zoriona eta poztasuna beraien aurpegietan! Ez dute berealakoan ahaztuko egun hori gure futbolariek.

Nahiz eta batzuek hala ez uste, futbolak badu bere xarma eta horrelako bizipenek ez dute preziorik. Zorionak neska-mutilak!!!

Jai Batzordea eragileekin jaiak antolatzen

Jai Batzordea, urte hasieran, orain arteko jardunaren hausnarketa egin ondoren, ondorio batzuetara iritsi zen. Ondorio nagusia jaien antolakuntza eta gauzapenean murgilduta gutxi batzuk baino ez zeudela izan zen eta, beraz, jaien parte sentitzeko lan egiteko modua aldatu beharra zegoela. Aldaketa horren bidean hainbat urrats eman dira.

Alde batetik, hausnarketa herriko eragileekin eta gazteenekin partekatu da eta, antolakuntza eta programa aurrera ateratzeko, elkarlanean aritzeko eskatu zaie.

Bestetik, programa osatzeko bilera zabalak egin dira. Bertan egitaraua landu da eta, dagoeneko, ia prest dago.

Programa borobiltzeko zuen parte-hartzea eskatu nahi dizue Jai Batzordeak, martxan jarriko den argazki-lehiaketan.

Igeldo ere Euskahaldun



2015eko martxoan 19.Korrika Urepeletik abiatu eta Bilbon amaitu zen.

Hori dela eta martxoaren 18an “Korrika Txikia” ospatu zuten herriko txikiek, merienda eder batekin indarrak berreskuratuz.

Herriko eragile guztien artean, Igeldok bi kilometro erosi zituen euskararen alde. Martxoaren 22an, Igeldoko lehen kilometroa korrika egin zuten hainbat herritarrek Añorgaruntz.

Donostia aldean kilometro gehienak hartuta zeudenez, 2. kilometroa San Adrianen erostea erabaki zen. Nahiz eta bertatik goizeko 3retan igaro, herriko hainbat gazte bertaratu ziren korrika egitera.



Beti Euskahaldun, Gora Korrika!

Eskola Zaharra konpontzera doaz!

Eskola zaharreko teilatua konpontzeko lanak hasi dira azkenean eta hiru hilabetez luzatuko dira. Lanak burutzen diren bitartean, ahalik eta arazo edo oztopo gutxien eragiteko ahalegina egingo dute, plazako bizilagunei eta baita gai-nontzeko erabiltzaileei begira, beharrezko duten espazioa soilik hartuz.

Festa garaian obretan izango ditugu eskola eta plaza. Hala ere, obra-arduradunek esan digute, festetako asteen lanak geratuko dituztela. Eskenatokiak, urtero bezela, bere lekua izango du.

Lanen harira, teilatua guztiz berritzeaz gain, faxadak, ere berriztatuko dira. Egitura aldetik, solairuak sendotzeko errefortzu puntual batzuk aurreikusi dituztela.


XXXVIII. Lapa saria

Iada amaitu da apirilarean zehar jokatu den Lapa-saria. Saillkapen nagusian lehen lauak honakoak izan dira:

1. Jose Mari-Amets 757puntu
2. Joritz-Julen 618 puntu
3. Jose-Juan 588 puntu
4. Kandido-Antonio 518 puntu



Lapa-sariko orokorreko lau bikote irabazleak



BOZKA-EGUNA ATE JOKA

4 urteren ostean, berriro ere Herri Kontseiluko hauteskundeak ditugu gainean. Orri informatiboa, Gurutze Dorronsoro eta Ramon Urruzmendirekin elkartu da urteotako balorazioa egin eta datozen hauteskunderi buruz hitz egiteko.

NOLA IKUSI DUZU ZURE BURUA IBILBIDEAN ZEHAR?

GU.: Orokorrean gustora aritu naiz, nahiz eta momentu batzuetan lan-karga handi xamarra izan den. Saiatu gara eta ahaleginak egin ditugu talde guztiaren artean gauzak ahalik eta txukunen egiten. Batzuetan asma-tuko genuen eta beste batzuetan ez, noski, baina horrelaxe izaten da.

R.U.: Nik esan behar banu, hasiera batean pixka bat kostatu egin zitzaigun zentratzea; gehienok ez genuelako alor honetan esperientziarik.

Gustatuko litzaidake hasiera batean planteatzen ziren batzordeek jarraipen hobea izatea, baina errealtatean gauza asko momentuan erantzun beharrekoak izan dira, hau da, sortutako arazo gehienak erantzun azkarra behar zuten eta, ondorioz, jarraipen hori nahi izan ez bezelakoa izan. Hori dela eta, autokritika eginenez, ez naiz kapaz izan esandako guztia aurrera eramateko.

ZER LORTU DUZUE AURRERA ATERATZEA?

G.D.: Herritarrekin, Itsas Aurrerekin eta Diputazioarekin elkarlanean herri-galdeketa egin eta aurrera eramatea. 20 bat urte pasa eta

gero berriz egitea garrantzitsua izan dela esango nuke. Sindikatuko teilatua berritzea ere pauso bat izan da, ea etorkizunean proiektu egoki bat osatzen den eraikinaren inguruan herritarren mesederako.

Igeldoko Herri Eskolarekin harremanak indartu direla eta, eskola herritik gertuago ikusten dugula esango nuke. Eskolatik ere sentimentu hori indartu dela uste dut. Horretarako, hainbat ekimen edo proiektu txiki martxan jartzea lortu da; eskolako jai

herriko festen egitarauan sartzea, euskara batzordea osatzea,...

R.U.: Gurutzek esandakoa gehituz, lau urteko negoziazioa eta gero, esan beharra dago eskola zaharreko teilatua konpontzea eta eurastrutura mantentzea lortu dugula, nahiz oraintxe hasi behar duten obra. Esan behar dut, Donostiko Udalean oso harrera ona izan dugula, nahiz eta, bai beraiek eta bai guk, gauza asko aurrera ateratzeko oztopo eta zailtasun asko izan ditugun.

ETA EGITEKO DAUDEN GAUZEN ARTEAN, ZER?

G.D.: Lehentasuna eskola zaharrak duela esango nuke, eraikina salbatu eta ea honen

inguruan egin daitekeena aztertzeo aukera dagoen.

R.U.: Lehen esan bezela, pixkanaka eskola zaharrarekin gauzak egiten doaz, baina garran-tzitsua ikusten dut Gurutzek aipatu duen azterketa hori egitea, hau da, eraikuntza hori nola planifikatu, zer egin daitekeen bertan...

G.D.: Baita ere, herriko gazteek dituzten beharrak aztertzea: etxebizitza, langabezia... eta adinean aurrera doan jendearen beharrak ere aztertu eta erraztasunak landu beharko genituzke epe motzean.

R.U.: Gurutze, ados esaten duzunarekin, baina uste dut Igeldoko beharrak ikuspegi orokorretik aztertu beharko liratekeela. Adibidez, BOE/VPOko etxebizitzaren jarraipena egitea, etxebizitza hutsak identifikatzea... eta baita ere, urteetan ahotan egon den espaloia famatua eta Tellabiderekkin hasita daukagun liburua amaitu.


H.K.ko KIDE GISA, IZAN AL DA NABARMENDUKO ZENUKETEN EGUNIK?

G.D.: Herri galdeketaren eguna, 2013ko azaroak 10. Parte-hartze handia izan zuen eta ilusioz betetako egun alaia izan zen benetan. Galdeketaren ondorengo egunak ere oso gogoangarriak izan ziren eta baita festa eta herri aurkezpen egun hura 2013ko abenduaren 22a.

R.U.: Horiez gain, nik, 2013ko abenduaren 17a aipatuko nuke, Aldundiak dekretua onartu zuen eguna.

ZERTAN DIRA EZBERDINAK ORAIN-GO HAUTESKUNDEAK ETA DUELA 4 URTEKOAK? ZERGATIK?

R.U. eta G.D.: Hasteko duela 4 urte 7 kontseilu-kide hautatu ziren. Momentu hartan 1000 biztanle baino gutxiago ginen eta. Egun, 1000 biztanletik gorako herria geranez, 9 kontseilu-kide aterako dira hautatuak, udal-txe txikiak erreferentziatzat hartuta. Beste ezberdintasun bat bozkatzeko garaian izango da: Duela 4 urte gehienez 3 aukeratu zitezkeen eta oraingo honetan, gehienez, 4. Lau horien artean, bi generoak ordezkatzuta egon beharko dute, hau da, gehienez bi emakume eta bi gizaseme bozkatu ahalko dira. Eta azkeneko ezberdintasuna, bozkatzeko adina 16 urtera jaistea erabaki zen batzarrean.



HERRITARREK ZER EGIN BEHARKO DUTE ETA NOLA HAUTESKUNDEETAN PARTE HARTZEKO?

R.U. eta G.D.: Lehenik hauteskunde eguna maiatzaren 24an izango dela esan behar da. Boka Itsas Aurre kultur etxean eman beharko da goizeko 9tatik arratsaldeko 8tara irekita. Norberak etorri beharko du identifikatuko duen dokumentu batekin. Ezin badu, boto delegatua emateko aukera ere egongo da. Horretarako, beste pertsona batek bozka sobrean sartuta eta bozka emailearen nortasun agirai edota kopia ekarri beharko du.

“denon artean jarraitu behar baitugu lanean”

ZER ESANGO ZENIOKETE HERRITARRARI

24EAN BERE BOZKA EMAN DEZAN?

G.D.: Parte hartzeak garrantzia handia duela. Herri Kontseilu berritua osatzeko gogoia eta ilusioa jartzeko, denon artean jarraitu behar baitugu lanean.

R.U.: Lehenbizi animatu nahi nituzke herritar guztiak hauteskunde hauetan parte hartzera. Aukeratzan den Herri Kontseilu berrituak garrantzia handia izan dezake eta, hauteskunde egunean parte hartzea handia bada, indar handia eta errekonozimendu handiagoa lor ditzake, bai kanpoko administrazioei begira, baita epaileak ematen duen epaiaren aurrean ere.

ETA KONTSEILUKIDE IZANGO DIRENEI?

G.D.: Gogoz eta ilusioz sartzeko. Lanerako gogoia eta pazientzia puska bat ere behar dira

R.U.: Animo asko eta lasai hartzeko esango nieke. Eta batzuetan nahiz eta gauzak ondo ez atera, ez frustratu eta jarraitu aurrera gogotsu.

SAN ISIDRO EGUNA, LEHEN ETA ORAIN

Maiatza inguratzean, udaberri sasoi betean, Udaberri festa ospatzen dugu herrian. Aspaldian San Isidro eguna izaten zen ospakizun egun bakarra baina, azken aldian, San Isidro eguna ospatzeaz aparte beste zenbait ekintza ere izaten ditugu. San Isidro egunaren bueltan herrian zer ospakizun egin izan diren jakin nahi izan dugu eta, horretarako, Antton Domonbororekin elkartu gara, bera izan baita urte askotan zehar eguna antolatzen aritu izan den kideetako bat, herriko beste hainbat baserriarrek



rekin batera.

Anttonek bere txikitako oroitzapenetan, San Isidro eguna elizaren inguruan antolatzen zen jai gisa gogoratzen du. Meza izan ohi zen eta, ondoren, prozesioa egiten zuten. San Isidro bizkarrean hartuta, gurutzeraino. Bertan apaizak hego eta iparraldeko larrak bedeinkatzen zituen, baserriarrei urte ona opar eta eurite eta lehortek uxatuz. Ondoren, baserriarrek euren aldetik

herrikoia eta bazkaria egin ohi zuten.

Gero, frankismo garaiko nekazal egitarak (Camara Sindical Agraria) antolatzen zuten San Isidro eguneko ospakizuna. Donostiako nekazal auzune ezberdinetan antolatzen zuten txandaka (Altza,



Astigarraga eta Igeldo) eta, batez ere, kama-mailan biltzen zirenak elkartzen ziren. Eguerdian dema edo herri-kirolak izan ohi ziren eta gero bazkaria. Hala ere, ez omen zen herritar guztirentzat izaten; Kamarak ordaindua izaten zen eta antolatzaile edo sindikal mailan ibiltzen zirenak biltzen ziren.

Frankismo ostean, askatasun sindikalarekin batera sortu zen EHNE sindikatua eta, hasierako urteetan, Kamarak eta EHNEk elkarlanean antolatu ohi zuten. Orduan ere, Kamarak ordaintzen zuen bazkaria baina herritarrengana gehiago zabaldu bertaratze-ko aukera. 3 nekazal auzunetan txandakatur antolatzen jarraitu zuten. Bazkaria, hala ere, jatetxeetan izan ohi zen, Igeldon "Pakone" jatetxean egin izan zela esan zigun Anttonek.

Denborarekin EHNE sindikatuak hartu zuen herri ezberdinetako udaletxeekin batera jai antolatzeko ardura. Gainera Astigarraga udalerrin egin zen eta 3 auzun-arte elkarlana eten egin zen. Igeldon, Donostiako udaletxearekin elkarlan bat eginen saiatu ziren orduko antolatzaileak, baina ez zuten finantzaketarik lortu. Hori dela eta,

holabaiteko auto-finantzaketara jo behar izan zuten eta hala, herri bazkari eta zozketa bidez, jai herrikoia- goa bihurtu zen. Sasoi hartan, San Isidro egunetik gertuen zegoen igandean ospatzen hasi ziren, aste egunez, herri-bazkaria antolatzea nahiko zaila baitzen. Lehendabiziko urteetan erantzun ona izan omen zun.

Data aldetik arazoak izan ohi zituzten; inguruan beste hainbat ospakizun izaten ziren igandez eta urteren batean gastuak ordaint-

zeko adinadiru ez ateratzea ere suertatu zen.

Gerora, Musikarte kultur elkarteak antolatzen zuen Udaberri-Festa, kurtso bukaerako ospakizun moduan. San Isidro jaia antolatzen zutenek, birplanteamendu beharra ikusten zuten eta, Musikartekin elkarlanean, Udaberri Festaren baitan antolatzen hasi ziren. Orduan, erabaki zen, egunean bertako ospakizuna berreskuratzea. Astegunez tokatzen zenean, Txistu jatetxean egin izan zen bertso-afaria zenbait urtetan. Astebukaeran tokatuz gero, herri-afari edo bazkaria kultur etxean. Egun ere, dinamika beretsuan jarraitzen da; Herri

Kontseiluarekin eta Nekazal Kooperatibarekin elkarlanean, herriko zenbait baserritar eta herritarrek jarraitzen dute antolatzen udaberria alaituz, nekazarien zaindariaren eguna gogoratuz eta herria bizirik mantenduz!!!



UDABERRI FESTA 2015

EGITARAUA:

Maiatzak 15, ostirala SAN ISIDRO EGUNA

18:30etan Pelota Eskolako **haurren pelota** partiduak.

19:30etan Pelota **partidu herrikoiak**, adin ezberdinetako pelotariekin.
(Nahi duten guztientzat irekia, ANIMATU!)

***** Arratsaldean zehar, MARISKADA eder baten errifak salduko dira eta zozketa frontoian egingo da, afalurretik.**

21:00tan BERTSO-AFARIA Jexux Mari **IRAZU** eta Julio **SOTO** bertsolariekin eta **ALKORTA** anai-arrebak trikitilariekin.

***** Txartelak TXISTU eta TXAPELA tabernetan egongo dira salgai, MAIATZAK 13, asteazken eguerdi arte!!!**

Maiatzak 16, larunbata:

19:30etan BERTSO POTEOA herriko **"sasi-bertsolariekin"**. Bertso poteoari amaiera emateko kultur-etxean zerbait dastatzeko aukera izango da, 5€ truke.

23:00tan ERROMERIA Leire eta Amaia trikitilariekin kultu etxean.
(Barra ere irekita egongo da).

Maiatzak 17, Igandea:

19:30etan ANTZERKIA "Amets Zirkoa Salgai" Eskolako aretoan. (14 urte-tik gorakoentzat)

GURE ESKU DAGO

Erabakitze-eskubidearen alde iaz egindako giza kate erraldoi arrakastatsua izan zela ikusita, aurten ekainaren 21a da gorde beharreko data.

Egun horretan, hiriburu guztietan 12:00tan giza kateak egingo dira eta 17:30etan izango dira ekitaldi nagusiak.

Baiona, Bilbo, Donostia (Anoeta Estadioa), Gasteiz eta Iruñean burutuko dira eta, herriz-herri bilduko diren oihal zatiak josita, hautestontzi erraldoiak eraikitzea da helburua. Bertan egoteko alde zurreratik sarrera erosi beharko da.

Dena dela, eguna berotzeko, makina bat ekintza egiten ari dira; horren lekuko. apirilaren 25 eta 26an Euskal Herriko hainbat herritan Joste-Egunak antolatu izana.



GAZTE MARTXA

2000 gazte inguruk parte-hartu zuten Ernai eta Aitzina gazte antolakundeek Apirilaren 3tik 5era Lekunberritik Berriozera "gazteok martxan" lemapean antolaturiko mendi martxan.

Ostiral eta Larunbatean Lekunberritik Berriozarrera ibilbidea egin ondoren, igandean gazteak Iruñeara joan ziren Aberri Eguneko manifestazioan parte-hartzera. Ekitaldi nagusian "Herri librea erai-ki nahi dugu, pertsona askez osatutako herri libre" azpimarratu zuten gazteek.



BIZTZARI BIZKARKA

Oso ekibokaturik bizi gara, oso deskuidaturik. Ez gara jabetzen bizitza hau benetan zer den, zertan datzan; ez gara ohartzen bizitzen dugun bizitza, ez dela bizitza. Berdin ahoskatzen dela, berdin idazten, baina desberdin bizitzen dela.

Oso azalekoak gara, oso kanpora begiratzekoak. Garrantzirik ez duten gauzei garrantzi eman zaleak, eta garrantzizkoei itsu-gor egiten. Egunak arazo ez diren arazoez korapilatzen zaizkigu, korapilatzen ditugu. Arnasa kentzen digute, loa lapurtzen. Baina arazoak beste batzuk dira. Arnasa eta loa benetan lapurtzen dizutenak. Konponbiderik ez dutenak. Horiek dira arazoak.

Gizakiok behar ditugu eguneroko kezka txikiak, arantzatxoak. Aurrera egiteko heldulekutzok dira. Baina puztu eta puztu egiten ditugu, zaildu eta zaildu. Eurentzat bizitzen bukatzeko.


Egunak betebeharrez betetzen ditugu. Gero eta obligazio gehiago, gero eta azkarrago, nahiago. Presaren presaz, eguzkiari begiratzeko ohitura ere galdu genuen, eguzkiari irribarre egiteko ilusioari eskua ukatu. Hargatik ezkututzen da gaue-ro mendien artean, lotsaturik, penaturik. Hargatik ateratzen da goizero, inoiz bizitza hau benetan zer den jabetuko garen esperantzan.

Iraganean eta etorkizunean bizi gara. Ez gara bizi. Iraganik eta etorkizunik ez delako existitzen. Oroitzapenak baino ez. Eta eskerrak. Baina bizitza orain da, arnasaldi hau da. Urrunegi luzatzen dugu begirada, akaso ezagutuko ez ditugun egunsentietara.

Badakigu hilkorak garela, bukatuko dela. Baina ez dakigu. Nahiago dugu hilezkortasunari aukera bat eman, nahiago dugu geure burua engainatuta bizi. Akaso gutxiago sufritzeko. Baina bizitza eta sufritzea lagun dira. Eta heriotzari bizkarka bizi denak, nekez egingo dio eguzkiari irribarre.

Julio Soto Berria

JEROGLIFIKOAK



Nolakoa da Anaren senargaia?

ASMAKIZUNA

Hil batzuek 31 egun dituzte; 30ekoak ere badira. Baina zenbatetik dituzte 28 egun?


TXISTEA

Zertan dira ezberdinak arkakusoa eta elefantea? Elefanteak arkakusoa izan ditzake baina arkakusoa elefanterik ez!

SUDOKUA

5		1					3	2
			3	1				8
9	8	3		2				
			2				8	5
4		2	8		3	9		7
3	5				7			
8				6		7	5	9
6				7	5			
1	7					6		4

7 EZBERDINTASUNAK



AURREKO ERANTZUNAK

JEROGLIFIKOAK

Bideak


ASMAKIZUNA

Ipurtagia

SUDOKUA

5	8	9	4	7	1	6	3	2
7	1	3	2	6	8	4	9	5
6	2	4	3	5	9	7	1	8
3	9	8	7	4	6	2	5	1
4	5	6	9	1	2	3	8	7
2	7	1	8	3	5	9	6	4
9	3	2	5	8	4	1	7	6
8	6	7	1	2	3	5	4	9
1	4	5	6	9	7	8	2	3

7 EZBERDINTASUNAK



BA AL ZENEKIEN?



Mañu Lizarazurekin elkartu eta Arritxuloko basora joan gara.

Basoan barrena abiatu eta harkaitz handi baten oinetan sarbide txiki bat topatu dugu.





Mañuk kontatu digunez, Igeldon frankistak sartu ziren eta Mañuren amak tiro hotsekin izututa, haurrak hartu eta Arritxuloko basora eraman zituen. Harkaitz azpiko zuloan, Lapabide, Belabieta-txiki eta Arritxulo baserriko hiru familiek bi gau eta bi egun pasa zituzten ezer jan eta edan gabe. Tiro hotsak baretu zirenean, atera eta berriz etxera bueltatu ziren.



HERRIKO AGENDA

- MAIATZAK 15** SAN ISIDRO EGUNA
- MAIATZAK 16** UDABERRI FESTA
- MAIATZAK 17** 19:30ETAN ESKOLAN, "AMETSEN ZIRKOA" ANTZELANA (14 URTETIK GORAKOENTZAT)
- MAIATZAK 24** 9:00-20:00TARA KULTUR ETXEAN, HERRI KONTSEILUKO HAUTESKUNDEAK
- EKAINAK 14** 10:30ETAN IGELDOKO XXXV. KROSS IGOERA
- EKAINAK 20** ESKOLAKO KURTZO AMAIERA ETA FESTAURREAK
- EKAINAK 21** GURE ESKU DAGO-REN EKITALDIA DONOSTIAN
- EKAINAK 23** SAN JUAN BEZPERA
- EKAINAK 26-29** SAN PEDRO JAIK
- UZTAILAK 2** SANTA IXABEL



**Igeldoko
Herri
Kontseilua**

Laguntzailea:



**Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián**